Rehabite, Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresei errekerimendua bidali zitzaion.

2024/05/24

EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia zirkularraren Zuzendaritzari errekerimendua betetzeko epea luzatzeko eskaera.

EJk epe luzapenik emango ez zela adierazi zuen.

Rehabite, Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresak EJk egindako errekerimenduari erantzunez aurkeztutakoa.

2024/05/30
(2024-7173 zk.)

Rehabite, Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresak EJk egindako txostenari erantzunez aurkeztutakoa. Eta, igorpena EJri.

2024/06/11
(2024-7680 zk.)

EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren jakinarazpena.

2024/06/21
(2024-8203 zk.)

“(…) Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikulua araber, eranskinean agertzen diren eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin zaie, planak ingurumenean izan ditzakeen eraginak nabarmenak izan daitezkeen, eta, ondorioz, Planak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen zehazteko, edo, bestela, planean sartu behar diren baldintzak ezartzeko, ingurumen ondorio posibleak saihesteko edo zuzentzeko”.

EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren ebazpena. (gaztelaniazko bertsioa)

2024/09/10
(2024-11329 zk.)

“Zehaztea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta betiere ebazpen honetan

EJko Ingurumen Kalitatearen eta
Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritzaren ebazpena.
(euskarazko bertsioa)

2024/10/04
(2024-12698 zk.)

*ezarritako babes- eta zuzenketa-
neurriak eta sustatzaileak
planteatutakoak hartuta,
aurrekoen aurkakoak ez badira,
ez dela aurreikusten Tolosako
Hiri Antolamenduko Plan
Orokorreko «24. lurramendi»
eremuaren aldaketa puntualak
ingurumenean ondorio kaltegarri
nabarmenak eragingo dituenik,
eta, beraz, ez dela beharrezkoa
ingurumen-ebaluazio estrategiko
arruntik egitea.»*

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 2025eko abuztuaren 11n, hirigintzako arkitektoak txosten teknikoa egin zuela eta, besteak beste honakoa jaso zuela:

<< 1_ TXOSTENAREN XEDEA

Aurrekarietan adierazi denez, 2025eko uztailaren 18an (10062 sarrera zk.), Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP-k aurkeztu du HAPOko «24. lurre» hirigintza esparruaren aldaketa puntuala behin betiko izaeraz onartzeko dokumentazioa, Aritz Berastegui Aizpurua, Enrike Etxeberria Lekuona eta Josu Laguardia Igiñitz arkitektoek eta Felipe Saragueta Irazoki abokatuak izenpetua.

Txosten honen xedea da uztailaren 18an aurkeztutako dokumentua aztertzea eta, hala badagokio, dokumentua behin-behineko izaeraz onartzeko proposamena egitea.

2.- HAPOREN ALDAKETAREN HELBURUA

«24. lurre» esparruko HAPO aldaketa honek irizpide eta helburu hauek garatzen ditu:

- Hirigintza azpieremu bat ezartzen eta bertan titulartasun publikoko “24.2 lurramendi Ospitalea azpieremua” izeneko “titulartasun publikoko osasun ekipamendu kolektiboko zuzkidura” bat mugatzen, antolatzen eta zehazten da.
- Ondoko F.10 “Espazio Libreen Sistema Orokorren zati bat G.00 “Ekipamendu komunitarioko Sistema Orokor” gisa birkalifikatzen du.
- “24.2 lurramendi Ospitalea” azpieremuaren baitan, nola sestra ganean hala sestrapean, eraikigarritasun fisikoa ematen zaion lursail bat ezartzen da, eskualde bokazioko osasun ekipamendu berri baten eskaerari erantzuteko adinakoa.

3.- HAPOREN MOLDAKETAREN EZAUGARRIAK

HAPOren moldaketa honek hirigintza azpiero bat ezartzen du, 8.543,84 m²-ko azalerarekin, eta bertan titulartasun publikoko “24.2 lurramendi Ospitalea azpiero” izeneko “titulartasun publikoko osasun ekipamendu kolektiboko zuzkidura” bat mugatzen, antolatzen eta zehazten du.

Azpiero horretan 8.423,64 m²-ko azalera duen lursail bat bereizten da, eta sestra gaineko eta sestrapeko eraikigarritasun fisikoa eta profila ematen zaio, eta bertan erabilerak, eraikuntza eta urbanizazioa arautzeko irizpide batzuk finkatzen dira. Irizpide horiek, besteak beste, “Hirigintza Arauak” 3. Dokumentuan jasotako Arau Partikularrean deskribatzen dira.


Proposatutako antolamenduaren ezaugarriak hauek dira:

KALIFIKAZIO OROKORRA	AZALERA (m ² a)
“G. 00 Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra”	8.476,73
“E. 00 Bide Komunitarioko Sistema Orokorra”	67,11
GUZTIRA	8.543,84

KALIFIKAZIO XEHATUA	AZALERA (m ² a)
“g. 00 Ekipamendu komunitarioa”	8.423,64
“e.10 Bide komunikazio sarea”	120,20
GUZTIRA	8.543,84

	ERAIKIGARRITASUN FISIKOA (m ² e)
Sestra gainean	22.910,00
Sestrapean	17.730,00

Antolamendu planoa. Zonifikazio globalaren planoa



Aldaketa honekin HAPOk aurreikusitako Hiriko Espazio Libreen Sistema Orokorren azalera gutxitu egiten da (2.086,14 m²), zati bat Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra bezala kalifikatzen delako. HAPOn aurreikusitako soberakina 6.893,00 m²-koa izanik, aldaketaren ondorioz, 4.806,86 m²-ko soberakina geratuko litzateke; beraz, indarreko legediaren araberrako estandarrak betetzen dira.

4.- HAPO ALDAKETA PUNTUALAREN DOKUMENTUAREN EDUKIA

Udal teknikariaren gidaritzapean Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek idatzitako HAPO aldaketa puntualari dagokion dokumentuaren edukia honakoa da:

➤ Dokumentazio idatzia:

1. Memoria eta eranskinak

- “I” eranskina. Ekarpenak.
- “II” eranskina. Irismen agiria.
- “III” eranskina. Zortasun aeronautikoen arloko txostena.
- “IV” eranskina. Telekomunikazioen arloko txostena.
- “V” eranskina. Foru Aldundiko errepideen txostena.
- “VI” eranskina. URA agentziaren arloko txostena.
- “VII” eranskina. Gipuzkoako Urak arloko administrazioaren txostena.
- “VIII” eranskina. Eusko jaurlaritzako kultura sailaren txostena.
- “IX” eranskina. Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura sailaren txostena.
- “X” eranskina. Eusko Jaurlaritzako osasun saileko txostena.
- “XI” eranskina. Tolosaldeko ospitalearen Plan Funtzionala. Eusko Jaurlaritza.

- “XII” eranskina. Gomendioak genero ikuspegitik.
- “XIII” eranskina. Irisgarritasuna.
- “XV” eranskina. Laburpen betearazlea.
- “XVI” eranskina. Eragin akustikoari buruzko azterlana.
- “XVII” eranskina. Ingurumen azterketa estrategikoa.
- “XVIII” eranskina. Iberdrola.

2. Antolakuntza eta kudeaketa jarraibideak
3. Hirigintza arauak
4. Ekonomiaren eta finantzen bideragarritasun azterketa
5. Informazio eta antolamendu planoak
6. Iraunkortasun ekonomikoaren txostena

➤ **Dokumentazio grafikoa:**

1. Informazio planoak (11)
2. Antolamendu planoak (8)

4.1.- Hirigintza-legediak eskatzen duen edukia

Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 62. artikulua zehazten du Pan Orokorrek edota honen aldaketek izan behar dituzten agiriak. Bestalde, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onartzen duenak Laburpen Exekutibo bat aurkezteko beharra jasotzen du bere 25.3 artikuluan.

Beraz, Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko edukia badu aurkeztutako dokumentuak. Baita 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak Laburpen Exekutiboa ere.

4.2. Plangintzaren bestelako eraginei dagokionez:

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, planak formulatzerakoan ere kontuan hartu beharko da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzearen helburua. Hala, memoriaren II. eranskinean **ospitale berriaren diseinurako gomendioak txertatu dira genero ikuspegia barneratzeko.**

Bestetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu eta plangintzak onesteko prozeduran ekimen horiek euskararen erabilerari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da.

Honen harira, 2024ko urtarrilaren 16an Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamentuko Zerbitzuburuak txostena idatzi du eragin linguistikoari buruzko irismen dokumentuari buruz eta honakoa proposatzen du:

“BAKARRA.- Tolosaldeko ospitale publikoa eraikitzeko HAPOaren aldaketari ez egitea hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana, irismen-dokumentuan ondorioztatu baita proiektuak ez duela eragin adierazgarririk izango Tolosako egoera soziolinguistikoa.”

5_ EKARPENEI BURUZKO AZTERKETA

HAPO aldaketa puntualaren hasierako onespina zuen dokumentua jendaurrean egondako epealdian honako ekarpenak jaso dira:

➤ **JESUS MARIA ARRIETA SAGASTI (2025-01-14 / 565 sarrera zk.) MIGUEL MUÑO A FUNDAZIO**Aren izenean, honakoa eskatzen du:

- HAPO aldaketaren xede den esparruaren garapenak Fundazioarena den lursail bat hartzen duela dio, baina hasierako onespina duen dokumentuan ez dela aipatzen horri buruzkorik. Horregatik, dokumentu hori zuzentzea eskatzen du.

Udalak aintzat hartu du Arrieta jaunaren ekarpena, eta 2025eko uztailaren 18an (2025-10062 sarrera zk.) aurkeztutako dokumentuan jasota geratu da. Ekarpeneren ondoriozko zuzenketak ez dakar funtsezko aldaketarik.

6_ HAPO PUNTUALKI ALDATZEKO ESPEDIENTEAK JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104. artikulua xedatzen duenez, hirigintza-zehaztapenak berrikusteko eta aldatzeko espedienteak izapidetzeko, **haiek onartzeko jarraitutako prozedura bera bete beharko da.**

Plan Orokorra izapidetzea eta onartzea aipatutako legezko xedapeneren 90. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da:

«90. artikulua.— Plan orokorra egin eta izapidetzea.

(...)

5.— Udalak hasierako onespina emango dio plan orokorrari, eta ondoren jendaurrean jarriko du, udalerriari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. Plana hilabetez egongo da jendaurrean, azken argitalpenetik kontatzen hasita. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onspenaren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten; eta, Arabako kasuan, baita udalerriko administrazio-batzarrei ere.

6.— Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko irizitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduen funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onspina eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.»

«91. artikulua.— Plan orokorra behin betiko onartzea.

1.— Plan orokorra behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan; kasu bietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du aurretiaz.

2.– Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio. Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.

3.– Batzordeak plana jaso eta hiru hilabeteko epean txostena eman ez badu, aurrera egin ahal izango da izapidetzekin. Plan orokor bat ezin izango da behin betiko onartu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena eman ez badu edo hori egiteko epea amaitu ez bada. Manu hau bete gabe onartzen diren plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Alabaina, txostena epea kanpo ematen bada, ez da nahitaez kontuan hartuko plana behin betiko onartzeko orduan.

(...)»

Aurrekarietan adierazi den bezala, Tolosako Udalak HAPOn aldaketa puntualari hasierako onspena eman eta jendaurrean jarri zuen. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere eman zitzaizen hasierako onspenaren berri, eta jaso ziren haien txostenak.

Ondoren, 2025eko uztailaren 18an, sektoreko eskumenak dituzten administrazioen arloko txostenak aintzat hartuta, batetik, eta, bestetik, jendaurreko epean egondako ekarpenen emaitzak ikusita, aurkeztu da behin betiko onspenerako dokumentua, hasierako onspena zuen dokumentazioa egokituta. Egokitzapen horrek ez dakar funtsezko aldaketarik.

Beraz, Plan Orokorra behin-behingoan onartzeko pausuak eman dira.

7_ PLANAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

2024ko irailaren 10ean Industria, trantsizio energetiko eta jasangarritasun saileko ingurumen kalitatearen eta ekonomia zirkularraren zuzendaritzaren irismen agiria jaso zen, besteak beste, honakoa ebatzita: **ez dela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar, ez baita aurreikusten planak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik.**

Ondorioz, Ingurumen Azterketa Estrategiko sinplifikatuaren prozedura jarraituta, **HAPOn Aldaketari hasierako onspena ematea erabaki zuen Tolosako Udalbatzak**, 2024ko urriaren 31n.

8_ JASOTAKO ARLOKO TXOSTENEN EBAZPENAK

Eskumeneko arloko administrazioek aurkeztutako txostenek honakoa diote:

- **Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak** aldeko txostena egin du eta eskatu du aurkeztea honakoa: batetik, ur-hornidurako zerbitzuaren erakunde kudeatzaileak emandako ziurtagiri bat, zeinak berrmatutako duen sareak berrmatutako baliabide nahikoak izapidetzen ari den aldaketa puntualaren ondoriozko beharrak asetzeko; bestetik, saneamendu-kudeatzailearen txosten bat, egiaztatze bateragarriak direla proposatutako konexioa eta egungo saneamendu sarea.

- **GFAko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirola departamentuak** egindako txostenaren bidez eskatu du; lehenik, osatzea I.9 planoa Donejakue bidearen ondoriozko Yurramendi egoitzaren babes eremuarekin eta, baita, HAPOaren ondare katalogoko 92 eta 13 elementuei dagokien eremuekin; bigarrenik, osatzea dokumentu idatzia ere, planoa osatzeko eskatu diren elementu berberekin, dagokion arrazoitza eginez.
- **Gipuzkoako Ur Kontsortzioak** aldeko txostena egin du 2025eko martxoaren 7an, eta gomendio eta gidalerro orokorrak ematen ditu.
- **Komunikazio elektroniko**en hedapenari buruzko txostena ere aldekoa da.
- **Zortasun aeronautikoen arloko Ministeritzak** ebatzi du txostena egin beharrik ez dagoela, HAPO aldaketa honek ez diolako eragiten.
- **EJko kultura eta hizkuntza politika sailak** aldeko txostena egin du.
- **GFAko Bide Azpiegiturak departamentuak** aldeko txostena egin du.
- **EJko Ingurumen Osasunaren arloko administrazioak** adierazi du, batetik, ez dela beharrezkoa ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura betetzea, eta, bestetik, gomendio batzuk ematen ditu.

8.1- Arloko txostenen integrazioa behin-behineko onespenerako aurkeztutako dokumentazioan

Behin betiko onespenerako aurkeztutako dokumentazioa osatu da arloko bi administrazio hauek eskatutakoarekin:

- **Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak** ur-hornidurako zerbitzuaren erakunde kudeatzaileak emandako ziurtagiri bat aurkeztea eskatu du, zeinak bermatuko duen sareak badituela baliabide nahikoak izapidetzen ari den aldaketa puntualaren ondoriozko beharrak asetzeko. Halaber, saneamendu-kudeatzailearen txosten bat eskatu du egiaztatzeko bateragarriak direla proposatutako konexioa eta egungo saneamendu sarea.
- **GFAko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirola departamentuak** egindako txostenaren bidez
 - Osatzea I.9 planoa Donejakue bidearen ondoriozko Yurramendi egoitzaren babes eremuarekin eta, baita, HAPOaren ondare katalogoko 92 eta 13 elementuei dagokien eremuekin.
 - Osatzea dokumentu idatzia ere, planoa osatzeko eskatu diren elementu berberekin, dagokion arrazoitza eginez.

Kontuan hartuta, batetik, arloko eskumena duten administrazioek aurkeztutako txostenak, eta ikusita horiek aintzat hartu direla behin betiko onespenerako aurkeztutako dokumentazioan; eta, bestetik, jendaurreko epean egondako ekarpenaren ondoriozko egokitzapenak ez dutela ekarri funtsezko aldaketarik, HAPOko aldaketa puntualari. behin-behineko onespenera emateko arazorik ez dagoela irizten da.

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire irizpen

PROPOSAMENA

LEHENA.- Behin-behineko onespena ematea HAPOko «24. lurre» esparruko aldaketa puntualari eta horri dagokion Ingurumen-Azterketa Estrategikoari.

BIGARRENA.- Bidaltzea txosten hau **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari (EAELAB)** dagokion txostena egin dezan.

Oharra: Gai juridikoari eta prozedurari dagokionez, saileko teknikari juridikoaren txostenean jasotakoak hartu beharko dira kontuan. >>

BIGARRENA.- 2025eko abuztuaren 11n, hirigintzako tekniko juridikoak txosten juridikoa egin zuela eta, besteak beste honakoa jaso zuela:

<<LEHENA.- Gairen inguruan egiten den honako **azterketa juridikoa**:

Azterketa juridikoari dagokionez, oro har, 2024ko apirilaren 4ko zein urriaren 18ko txostenetan (MAU24054 – MAU240130) esandakoari lotzen natzaio. Kontuan izanik, ordea, EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia zirkularraren Zuzendaritzaren ingurumen-txosten estrategikoan jasotakoa, hau da, Tolosako HAPOko <<24. lurre>> hirigintza esparruko aldaketa puntualak ez duela ondorio nabarmenik ingurumenean, aintzat harturik bete beharreko hirigintza-plangintzaren prozedura zein ingurumen-prozedura, honako hau da espediente honetan jarraitu beharreko eta jada jarraitzen ari den prozedura:

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA.	INGURUMEN-PROZEDURA.
2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa.	21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
1.- Dokumentua idaztea erabaki ondoren, informazioa eskatuko zaie organo eskudunei (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.1 artikulua). Hasteko erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa aurkeztuko da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikulua). 2.- Plan Orokorra aldatzeko dokumentua idaztea (2/2006 Legearen 90.4 artikulua).	2.bis.- Aldi berean, udalak hasierako dokumentu estrategikoa eta IEE sinplifikatua hasteko eskaera egingo ditu. 3.- Espedientea aurkeztu duen ingurumen-organoari (aldaketa eta hasierako dokumentu estrategikoa) eragindako administrazio

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA.	INGURUMEN-PROZEDURA.
	publikoen eta pertsona interesdunen kontsultak bidaltzea hilabeteko epean. 4.- Ingurumen-organoak bi hilabeteko epean formulatzen du ingurumen-txosten estrategikoa, eta zehazten du ea ez duen ondorio nabarmenik ingurumenean, edo ea IEE arrunta egin behar zaion (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 31. artikulua).
1. aukera. Dekretuaren 38.3.c) artikulua. <u>Aldaketak ez du ondorio nabarmenik Ingurumenean.</u>	
5.- Udalak hasierako onespena emango dio Plan Orokorraren aldaketari. 6.- Aldizkarian eta egunkarian argitaratzen denetik gutxienez 45 eguneko epean jendaurrean jarriko da. Onspena sektoreko administrazioei eta administrazio-batzarrei jakinaraziko zaie. Laburpen exekutiboa argitaratzea (105/2008 Dekretuaren 32. artikulua). 7.- Plan Orokorraren aldaketa behin-behinean onartzea, dagozkion aldaketekin. Araban, erabakia igorriko die administrazio-batzarrei (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.6 artikulua). 8.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena (2/2006 Legearen 91.2 artikulua). Epea: 3 hilabete. 9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena udalari bidaliko zaio. 10.- 7.000 biztanletik beherako udalerrietan, udalak espediente osoa bidaliko dio foru-aldundiari, behin betiko onar dezan.	
11.- Udalak edo, hala badagokio, foru-aldundiak behin betiko onartzea, eta ALHAOn argitaratzea, hirigintza-arauekin batera. (2/2006 Legearen 89.5 eta 91.4 artikulua). EHAAn eta ingurumen-organoaren egoitza elektronikoa argitaratzea, aldaketa behin betiko onartzeko ebazpena eman eta 15 egun balioduneko epean, organo substantiboaren helbide elektronikoa aipatuta. (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 26. artikulua).	

Espedientea une honetan, 5. Eta 6. tramiteak beteta, hasierako onspena eta informazio publikoko zein jendaurreko izapidea beteta, alegia, 7. tramitea betetzeko unean dago. Beraz, prozeduran hurrengo urratsa da Tolosako HAPOko «24.lurre» hirigintza esparruko aldaketa puntualaren behin behineko onspena ematea eta EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeari txostena eskatzea. Zehazki, udalak honako pausuak emango ditu:

- Hasierako onspenaren jendaurreko informazioaren eta kontsulten emaitzak ikusita, udalak HAPO aldatzeko **proposamena** egingo du, Osoko Bilkurak **behin-behinean onar** dezan [Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) eta 47.2 II) artikulua], eta dagozkion aldaketak egingo ditu. Aldaketa horiek

hasieran aurreikusitako egiturazko antolamendua nabarmen aldatzea badakarte, Udalak hasierako onespén berria emango dio, eta jendaurrean jartzeko beste epe bat irekiko du.

- HAPOn aldaketa behin-behinean onartu ondoren, Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio, gehienez ere hiru hila-beteko epean txostena egin dezan.

Batzordeak txostena jaso eta hiru hilabeteko epean txostenik egin ez badu, izapideekin jarraitu ahal izango da.

HAPOn aldaketa ezin izango da inola ere behin betiko onartu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena eman gabe edo txostena emateko epea igaro gabe, eta arau hori errespetatu gabe onartutako plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Hala ere, epe kanpo emandako txostena ez da kontuan hartuko behin betiko onarpenean.

- Dagozkion aldaketak egin ondoren, Udalak HAPOn aldaketa **behin betiko onartzeko erabakia** hartu dezake, behin betiko onarpena bertan behera utzi, edo atzera bota, arrazoiak emanez. Ezespén partziala izan daiteke, baldin eta Lurralde Antolamendurako Batzordearen txosteneko eragozpenek eragiten badiete planaren gainerakoa modu koherentean aplikatzea eragozten ez duten zona edo zehaztapen zehatzei.
- HAPOn aldaketa behin betiko onartu ondoren, udalak, plana onartu eta hamabost egun balioduneko epean, onartutako plana argitaratu beharko du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta dagokion lurralde historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7. artikuluan adierazitako edukiarekin, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikuluan adierazitako baldintzetan. Halaber, udal honen egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri.

Era berean, horren kopia osoa dagokion foru-aldundiko plangintza-erregistrora bidaliko da, gordailuan utz dezan.

BIGARRENA.- Hasierako onespénaren ondorengo jendaurrean aurkeztu diren eskaera zein ekarpenak:

- 2025eko urtarrilaren 14an (565 sarrera zk.), Jesus Maria Arrieta Sagasti jaunak, Miguel Muñoa Fundazioaren Lehendakari gisa, udalean alegazio-idatzia aurkeztu zuen eta honako arrazoietan oinarritu zuen:

<<**Único.-** Recientemente, en fecha 31 de Octubre de 2.024, el Ayuntamiento de Tolosa ha aprobado inicialmente la Modificación Puntual del P.G.O.U para la creación de una nueva actuación urbanística en el Área 24 lurre, para la ubicación de un hospital comarcal que dé servicio a Tolosaldea.

A resultados de dicha actuación urbanística que se propone en el Documento aprobado, se va a ver afectada parte de una finca propiedad de la Fundación Muñoa que represento, concretamente el resto de la finca matriz (Parcela Registral nº 18/b) que en su día no fue incluida en el denominado Subámbito 24.1 lurramendi Pasealekua, y que se corresponde con parte de la Parcela Catastral 7475154 con 1.267 m2 que ahora se incluyen en la nueva actuación urbanística.

Analizado el documento, y teniendo en cuenta que el desarrollo futuro de dicha actuación habrá de ser ejecutado, en su caso, mediante el sistema de expropiación, al corresponderse con la ejecución de una dotación pública, se constata que, a diferencia de lo que se menciona en relación a otra parcela privada incluida en la actuación, nada se dice respecto a la superficie de la Fundación que ha sido citada. Dicha constatación se produce al observar el apartado correspondiente a la Estructura de la Propiedad (Págs. 11 a 13 de la Memoria), así como el Documento Directrices de Organización y Gestión.

Es por ello por lo que se solicita la corrección del Documento aprobado en el sentido expresado a los efectos oportunos.>>

- 2025eko urtarrilaren 30ean (1470 sarrera zk.), Julian Unanue Bereciartua jaunak, Gipuzkoako Baso Elkarteko Lehendakari gisa, udalean eskaera bat aurkeztu zuen, laburbilduz, honakoa eskatuz:

<<Gipuzkoako Baso Elkartea (GEBE) gara. Herrialdean baso jabe eta eremu gehien biltzen dituen elkartea. Gure bazkideak askotan, herrietako Plan Orokor edo arau subsidiarioak direla eta, baldintza eta muga ugari izaten dituzte. HAPOaren berrikuntza lanketetako partehartze prozesuak probestu nahiko genituzke etorkizuneko balizko arazo horiek konpontzeko. Hori dela eta honakoa eskatu nahiko genizueke:

Tolosako Udala, bere Hirigintza Antolatzeke Plan Orokorra berritzen ari den jakin nahiko genuke, gure aldetik iradokizun edo alegazioak egin ahal izateko. Horretarako, fase bakoitzak duen partehartze garaia denean guri informazio hori helaraztea eskatuko genizueke, gure aldetik ekarpenak egin ahal izateko.>>

HIRUGARRENA.- 2025eko uztailaren 18an (10062 sarrera zk.) Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek udalean aurkeztutako Tolosako HAPOren Aldaketa Puntualaren behin betiko onespenerako dokumentuan, besteak beste, Miguel Muñoa Fundazioak aurkeztutako eskaerari buruz erantzuntakoa:

<< La alegación, de 14 de Enero de 2025, señala que el subámbito 24.2 “lurramendi ospitalea” establecido en la modificación del P.G.O.U. afecta a una parte de la finca propiedad de la Fundación Muñoa, que se corresponde con la parcela catastral 7475154, con 1.267 m2s. Esta finca, resto de la finca matriz “Parcela Registral nº18/b” en su día no fue incluida en el denominado subámbito 24.1 “lurramendi pasealekua”.

Se solicita que en los apartados 11 a 13 de la Memoria, relativos a la estructura de la propiedad, así como en el documento “Directrices de Organización y Gestión” se recoja la superficie correspondiente a la fundación señalando que se habrá de expropiar al tratarse de la ejecución de una dotación pública. Realmente, la superficie de la citada parte de la finca catastral propiedad de Miguel Muñoa Fundazioa que se localiza al Sur del Guardetxe tiene 1.351,05 m2s, correspondiente a la superficie a expropiar. **Ver apartado 8.5. de esta Memoria, plano I.4., Directrices de Organización y Gestión y Anexo I de esta Memoria** en los que se ha recogido esta cuestión. Efectivamente, esta cuestión no se había recogido adecuadamente, y es, a raíz de la alegación, que se detecta que la delimitación del suelo de la parcela a incluir en el subámbito es mayor.>>

<<8.5. ESTRUCTURA DE LA PROPIEDAD

En la actualidad, conforme a la información disponible, la estructura de la propiedad del ámbito responde, de forma aproximada, a la situación que se recoge en la siguiente imagen: (...)

Se trata de información contenida en el trabajo de la empresa GEOGRAMA denominado: "Propuesta de delimitación de las parcelas incluidas en el ámbito 24.1. Iurramendi Pasealekua de Tolosa". Este subámbito urbanístico se recoge en el **plano I.3 "Delimitación de subámbitos urbanísticos"**.

Las parcelas catastrales afectadas son:


- La nº 7475124, suelo propiedad del Ayuntamiento, obtenido a través de la gestión del sub-ámbito "24.1. Se trata de una parcela de varias hectáreas que incluye los suelos que circundan la residencia de ancianos y que tienen una calificación de Sistema General de Espacios Libres.
- La nº 7475103. Se trata de un triángulo de suelo privado situado en el aparcamiento. La superficie que señala el catastro es 411,00 m².
- La nº 7475126. Incluye la zona del aparcamiento salvo el triángulo correspondiente a la parcela 7475103. Es propiedad del Ayuntamiento, y la superficie que señala el catastro es 6.515,37 m².
- La nº 7475154. Incluye una serie de espacios libres perimetrales a la residencia Iurramendi, entre los que se encuentra la explanada Sur del "Guardetxe".

La concreta situación dentro del ámbito y delimitación de todas estas fincas queda concretada en el **plano I.4 "Parcelario"**.

Se deberá llevar a cabo la expropiación de la parcela nº 7475103, así como de parte de la nº 7475154 (en concreto, aquella situada en la explanada al Sur del Guardetxe).

Los suelos de la parcela de referencia catastral 7475103 tienen una superficie de 450,96 m²s y los de la 7475154, 1.351,05 m²s.>>

Plano I.4.



LAUGARRENA.- Gairen inguruan hirigintzako arkitektoak, 2025eko abuztuaren 11n, egindako txosten teknikoan (IA25_13), besteak beste, jasotako azterketa teknikoan adierazitakoa:

«1_ TXOSTENAREN XEDEA

Aurrekarietan adierazi denez, 2025eko uztailaren 18an (10062 sarrera zk.), Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP-k aurkeztu du HAPOko «24. lurre» hirigintza esparruaren aldaketa puntuala behin betiko izaeraz onartzeko dokumentazioa, Aritz Berastegui Aizpurua, Enrike Etxeberria Lekuona eta Josu Laguardia Igiñitz arkitektoek eta Felipe Saragueta Irazoki abokatuak izenpetua.

Txosten honen xedea da uztailaren 18an aurkeztutako dokumentua aztertzea eta, hala badagokio, dokumentua behin-behineko izaeraz onartzeko proposamena egitea.

2.- HAPOREN ALDAKETAREN HELBURUA

«24. lurre» esparruko HAPO aldaketa honek irizpide eta helburu hauek garatzen ditu:

- Hirigintza azpiero bat ezartzen eta bertan titulartasun publikoko “24.2 lurramendi Ospitalea azpiero” izeneko “titulartasun publikoko osasun ekipamendu kolektiboko zuzkidura” bat mugatzen, antolatzen eta zehazten da.
- Ondoko F.10 “Espazio Libreen Sistema Orokorren zati bat G.00 “Ekipamendu komunitarioko Sistema Orokor” gisa birkalifikatzen du.
- “24.2 lurramendi Ospitalea” azpieroaren baitan, nola sestra gainean hala sestrapetan, eraikigarritasun fisikoa ematen zaion lursail bat ezartzen da, eskualde bokazioko osasun ekipamendu berri baten eskaerari erantzuteko adinakoa.

3.- HAPOREN MOLDAKETAREN EZAUGARRIAK

HAPOren moldaketa honek hirigintza azpiero bat ezartzen du, 8.543,84 m²-ko azalerarekin, eta bertan titulartasun publikoko “24.2 lurramendi Ospitalea azpiero” izeneko “titulartasun publikoko osasun ekipamendu kolektiboko zuzkidura” bat mugatzen, antolatzen eta zehazten du.

Azpiero horretan 8.423,64 m²-ko azalera duen lursail bat bereizten da, eta sestra gainea eta sestrapetako eraikigarritasun fisikoa eta profila ematen zaio, eta bertan erabilerak, eraikuntza eta urbanizazioa arautzeko irizpide batzuk finkatzen dira. Irizpide horiek, besteak beste, “Hirigintza Arauak” 3. Dokumentuan jasotako Arau Partikularrean deskribatzen dira.


Proposatutako antolamenduaren ezaugarriak hauek dira:

KALIFIKAZIO OROKORRA	AZALERA (m ² a)
“G. 00 Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra”	8.476,73
“E. 00 Bide Komunitarioko Sistema Orokorra”	67,11
GUZTIRA	8.543,84

KALIFIKAZIO XEHATUA	AZALERA (m ² a)
"g. 00 Ekipamendu komunitarioa"	8.423,64
"e.10 Bide komunikazio sarea"	120,20
GUZTIRA	8.543,84

	ERAIKIGARRITASUN FISIKOA (m ² e)
Sestra gainean	22.910,00
Sestrapean	17.730,00

Antolamendu planoa. Zonifikazio globalaren planoa



Aldaketa honekin HAPOk aurreikusitako Hiriko Espazio Libreen Sistema Orokorren azalera gutxitu egiten da (2.086,14 m²), zati bat Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra bezala kalifikatzen delako. HAPOn aurreikusitako soberakina 6.893,00 m²-koa izanik, aldaketaren ondorioz, 4.806,86 m²-ko soberakina geratuko litzateke; beraz, indarreko legediaren arabera estandarrak betetzen dira.

4.- HAPO ALDAKETA PUNTUALAREN DOKUMENTUAREN EDUKIA

Udal teknikariaren gidaritzapean Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek idatzitako HAPO aldaketa puntualari dagokion dokumentuaren edukia honakoa da:

➤ **Dokumentazio idatzia:**

1. Memoria eta eranskinak

- “I” eranskina. Ekarpenak.
- “II” eranskina. Irismen agiria.
- “III” eranskina. Zortasun aeronautikoen arloko txostena.
- “IV” eranskina. Telekomunikazioen arloko txostena.
- “V” eranskina. Foru Aldundiko errepideen txostena.
- “VI” eranskina. URA agentziaren arloko txostena.
- “VII” eranskina. Gipuzkoako Urak arloko administrazioaren txostena.
- “VIII” eranskina. Eusko jaurlaritzako kultura sailaren txostena.
- “IX” eranskina. Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura sailaren txostena.
- “X” eranskina. Eusko Jaurlaritzako osasun saileko txostena.
- “XI” eranskina. Tolosaldeko ospitalearen Plan Funtzionala. Eusko Jaurlaritza.
- “XII” eranskina. Gomendioak genero ikuspegitik.
- “XIII” eranskina. Irisgarritasuna.
- “XV” eranskina. Laburpen betearazlea.
- “XVI” eranskina. Eragin akustikoari buruzko azterlana.
- “XVII” eranskina. Ingurumen azterketa estrategikoa.
- “XVIII” eranskina. Iberdrola.

2. Antolakuntza eta kudeaketa jarraibideak

3. Hirigintza arauak

4. Ekonomiaren eta finantzen bideragarritasun azterketa

5. Informazio eta antolamendu planoak

6. Iraunkortasun ekonomikoaren txostena

➤ **Dokumentazio grafikoa:**

1. Informazio planoak (11)

2. Antolamendu planoak (8)

4.1.- Hirigintza-legediak eskatzen duen edukia

Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 62. artikulua zehazten du Pan Orokorrek edota honen aldaketek izan behar dituzten agiriak. Bestalde, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duenak Laburpen Exekutibo bat aurkezteko beharra jasotzen du bere 25.3 artikuluan.

Beraz, Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko edukia badu aurkeztutako dokumentuak. Baita 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak Laburpen Exekutiboa ere.

4.2. Plangintzaren bestelako eraginei dagokionez:

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, planak formulatzerakoan ere kontuan hartu beharko da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzearen helburua. Hala, memoriaren II. eranskinean **ospitale berriaren diseinurako gomendioak txertatu dira genero ikuspegia barneratzeko.**

Bestetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu eta plangintzak onesteko prozeduran ekimen horiek euskararen erabilerari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da.

Honen harira, 2024ko urtarrilaren 16an Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamentuko Zerbitzuburuak txostena idatzi du eragin linguistikoari buruzko irismen dokumentuari buruz eta honakoa proposatzen du:

“BAKARRA.- Tolosaldeko ospitale publikoa eraikitzeko HAPOaren aldaketari ez egitea hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana, irismen-dokumentuan ondorioztatu baita proiektuak ez duela eragin adierazgarririk izango Tolosako egoera soziolinguistikoan.”

5_ EKARPENEI BURUZKO AZTERKETA

HAPO aldaketa puntualaren hasierako onespina zuen dokumentua jendaurrean egondako epealdian honako ekarpenak jaso dira:

➤ **JESUS MARIA ARRIETA SAGASTI (2025-01-14 / 565 sarrera zk.) MIGUEL MUÑO A FUNDAZIOAren izenean, honakoa eskatzen du:**

- HAPO aldaketaren xede den esparruaren garapenak Fundazioarena den lursail bat hartzen duela dio, baina hasierako onespina duen dokumentuan ez dela aipatzen horri buruzkorik. Horregatik, dokumentu hori zuzentzea eskatzen du.

Udalak aintzat hartu du Arrieta jaunaren ekarpena, eta 2025eko uztailaren 18an (2025-10062 sarrera zk.) aurkeztutako dokumentuan jasota geratu da. Ekarpeneren ondoriozko zuzenketak ez dakar funtsezko aldaketarik.

6_ HAPO PUNTUALKI ALDATZEKO ESPEDIENTEAK JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104. artikulua xedatzen duenez, hirigintza-zehaztapenak berrikusteko eta aldatzeko espedienteak izapidetzeko, **haiek onartzeko jarraitutako prozedura bera bete beharko da.**

Plan Orokorrak izapidetzea eta onartzea aipatutako legezko xedapeneren 90. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da: (...).

Aurrekarietan adierazi den bezala, Tolosako Udalak HAPOn aldaketa puntualari hasierako onspena eman eta jendaurrean jarri zuen. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere eman zitzaien hasierako onspenaren berri, eta jaso ziren haien txostenak.

Ondoren, 2025eko uztailaren 18an, sektoreko eskumenak dituzten administrazioen arloko txostenak aintzat hartuta, batetik, eta, bestetik, jendaurreko epean egondako ekarpenen emaitzak ikusita, aurkeztu da behin betiko onspenerako dokumentua, hasierako onspena zuen dokumentazioa egokituta. Egokitzapen horrek ez dakar funtsezko aldaketarik.

Beraz, Plan Orokorra behin-behingo onartzeko pausuak eman dira.

7_ PLANAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

2024ko irailaren 10ean Industria, trantsizio energetiko eta jasangarritasun saileko ingurumen kalitatearen eta ekonomia zirkularraren zuzendaritzaren irismen agiria jaso zen, besteak beste, honakoa ebatzita: **ez dela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar, ez baita aurreikusten planak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik.**

Ondorioz, Ingurumen Azterketa Estrategiko sinplifikatuaren prozedura jarraituta, **HAPOn Aldaketari hasierako onspena ematea erabaki zuen Tolosako Udalbatzak**, 2024ko urriaren 31n.

8_ JASOTAKO ARLOKO TXOSTENEN EBAZPENAK

Eskumeneko arloko administrazioek aurkeztutako txostenek honakoa diote:

- **Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak** aldeko txostena egin du eta eskatu du aurkeztea honakoa: batetik, ur-hornidurako zerbitzuaren erakunde kudeatzaileak emandako ziurtagiri bat, zeinak berrmatuko duen sareak badiatzen baliabide nahikoak izapidetzen ari den aldaketa puntualaren ondoriozko beharrak asetzeko; bestetik, saneamendu-kudeatzailearen txosten bat, egiaztatze bateragarriak direla proposatutako konexioa eta egungo saneamendu sarea.
- **GFAko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirola departamentuak** egindako txostenaren bidez eskatu du; lehenik, osatzea I.9 planoa Donejakue bidearen ondoriozko Yurramendi egoitzaren babes eremuarekin eta, baita, HAPOn ondare katalogoko 92 eta 13 elementuei dagokien eremuekin; bigarrenik, osatzea dokumentu idatzia ere, planoa osatzeko eskatu diren elementu berberekin, dagokion arrazoitzea eginez.
- **Gipuzkoako Ur Kontsultak** aldeko txostena egin du 2025eko martxoaren 7an, eta gomendio eta gidalerro orokorrak ematen ditu.
- **Komunikazio elektronikoen** hedapenari buruzko txostena ere aldekoa da.
- **Zortasun aeronautikoen arloko Ministeritzak** ebatzi du txostena egin beharrik ez dagoela, HAPOn aldaketa honek ez diolako eragiten.

- **EJko kultura eta hizkuntza politika sailak** aldeko txostena egin du.
- **GFAko Bide Azpiegiturak departamentuak** aldeko txostena egin du.
- **EJko Ingurumen Osasunaren arloko administrazioak** adierazi du, batetik, ez dela beharrezkoa ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura betetzea, eta, bestetik, gomendio batzuk ematen ditu.

8.1- Arloko txostenen integrazioa behin-behineko onespenerako aurkeztutako dokumentazioan

Behin betiko onespenerako aurkeztutako dokumentazioa osatu da arloko bi administrazio hauek eskatutakoarekin:

- **Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak** ur-hornidurako zerbitzuaren erakunde kudeatzaileak emandako ziurtagiri bat aurkeztea eskatu du, zeinak bermatuko duen sareak badituela baliabide nahikoak izapidetzen ari den aldaketa puntualaren ondoriozko beharrak asetzeko. Halaber, saneamendu-kudeatzailearen txosten bat eskatu du egiaztatzeko bateragarriak direla proposatutako konexioa eta egungo saneamendu sarea.
- **GFAko Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirola departamentuak** egindako txostenaren bidez
 - Osatzea I.9 planoa Donejakue bidearen ondoriozko Yurramendi egoitzaren babes eremuarekin eta, baita, HAPOaren ondare katalogoko 92 eta 13 elementuei dagokien eremuekin.
 - Osatzea dokumentu idatzia ere, planoa osatzeko eskatu diren elementu berberekin, dagokion arrazoitza eginez.

Kontuan hartuta, batetik, arloko eskumena duten administrazioek aurkeztutako txostenak, eta ikusita horiek aintzat hartu direla behin betiko onespenerako aurkeztutako dokumentazioan; eta, bestetik, jendaurreko epean egondako ekarpenaren ondoriozko egokitzapenak ez dutela ekarri funtsezko aldaketarik, HAPOko aldaketa puntualari. behin-behineko onespenera emateko arazorik ez dagoela irizten da.

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire irizpen

PROPOSAMENA

LEHENA.- Behin-behineko onespenera ematea HAPOko «24. lurre» esparruko aldaketa puntualari eta horri dagokion Ingurumen-Azterketa Estrategikoari.

BIGARRENA.- Bidaltzea txosten hau **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari (EAELAB)** dagokion txostena egin dezan.

Oharra: Gai juridikoari eta prozedurari dagokionez, saileko teknikari juridikoaren txostenean jasotakoak hartu beharko dira kontuan.>>

Kontuan izanik aurrekariak, aplikagarria den legerian ezarritakoa, jasotako txosten sektorialetan adierazitakoa eta hirigintzako arkitektoak egindako azterketa teknikoa, adierazi daiteke 2025eko uztailaren 18an (10062 sarrera zk.) Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek udalean aurkeztutako Tolosako HAPOren Aldaketa Puntualaren behin betiko onespenerako dokumentua eta, baita, espediente administratiboak gaur arte emandako izapideak BAT DATOZELA APLIKAGARRIA DEN LEGEETAKO XEDAPENEKIN. Hortaz, aurreko guztia kontuan izanik, hauxe da nire

ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENA.- Onartzea 2025eko urtarrilaren 14an (565 sarrera zk.), Jesus Maria Arrieta Sagasti jaunak, Miguel Muñoa Fundazioaren Lehendakari gisa, udalean aurkeztutako alegazio-idatzia.

Eta, aintzat hartzea 2025eko urtarrilaren 30ean (1470 sarrera zk.), Julian Unanue Bereciartua jaunak, Gipuzkoako Baso Elkarteko Lehendakari gisa, udalean aurkeztutako eskaera.

BIGARRENA.- BEHIN-BEHINEAN ONARTZEA Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek idatzi eta 2025eko uztailaren 18an aurkeztutako (10062 sarrera zk.) Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “24 lurre” esparruko aldaketa puntuala; jendaurreko epean aurkeztutako eta onartutako alegazioagatik zein udalean jasotako arloko txostenetan adierazitakoetatik ondorioztatutako funtsezkoak ez diren aldaketekin.

HIRUGARRENA.- Behin-behinean onartutako Plan Orokorren aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea, dagokion txostena egin dezan. Txosten hori loteslea izango da Plan Orokorren aldaketa lurralde-antolamenduko tresnetara eta beharrezkoak diren alderdi sektorial guztietara egokitzeari dagokionez.

LAUGARRENA.- Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, idazketa-taldeak txosten horren edukia Plan Orokorren aldaketan txerta dezan agintzea.>>

Guzti hau kontuan hartuta, Lurralde Batzorde Informatiboari honakoa proposatzen zaio:

IRIZPEN - PROPOSAMENA

LEHENA.- Onartzea 2025eko urtarrilaren 14an (565 sarrera zk.), Jesus Maria Arrieta Sagasti jaunak, Miguel Muñoa Fundazioaren Lehendakari gisa, udalean aurkeztutako alegazio-idatzia.

Eta, aintzat hartzea 2025eko urtarrilaren 30ean (1470 sarrera zk.), Julian Unanue Bereciartua jaunak, Gipuzkoako Baso Elkarteko Lehendakari gisa, udalean aurkeztutako eskaera.

BIGARRENA.- BEHIN-BEHINEAN ONARTZEA Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek idatzi eta 2025eko uztailaren 18an aurkeztutako (10062 sarrera zk.) Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “24 lurre” esparruko aldaketa puntuala; jendaurreko epean aurkeztutako eta onartutako alegazioagatik zein udalean jasotako arloko txostenetan adierazitakoetatik ondorioztatutako funtsezkoak ez diren aldaketekin.

HIRUGARRENA.- Behin-behinean onartutako Plan Orokorren aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea, dagokion txostena egin dezan. Txosten hori loteslea izango da Plan Orokorren aldaketa lurralde-antolamenduko tresnetara eta beharrezkoak diren alderdi sektorial guztietara egokitzeari dagokionez.

LAUGARRENA.- Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, idazketa-taldeak txosten horren edukia Plan Orokorren aldaketan txerta dezan agintzea.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzorde Informatiboak, 2025eko irailaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren ondoren emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Aitor Agirresarobe Murgi, Aitzol Garzia Azurmendi Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Onartzea 2025eko urtarrilaren 14an (565 sarrera zk.), Jesus Maria Arrieta Sagasti jaunak, Miguel Muñoa Fundazioaren Lehendakari gisa, udalean aurkeztutako alegazio-idatzia.

Eta, aintzat hartzea 2025eko urtarrilaren 30ean (1470 sarrera zk.), Julian Unanue Bereciartua jaunak, Gipuzkoako Baso Elkarteko Lehendakari gisa, udalean aurkeztutako eskaera.

BIGARRENA.- BEHIN-BEHINEAN ONARTZEA Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek idatzi eta 2025eko uztailaren 18an aurkeztutako (10062 sarrera zk.) Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “24 lurre” esparruko aldaketa puntuala; jendaurreko epean aurkeztutako eta onartutako alegazioagatik zein udalean jasotako arloko txostenetan adierazitakoetatik ondorioztatutako funtsezkoak ez diren aldaketekin.

HIRUGARRENA.- Behin-behinean onartutako Plan Orokorren aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igortzea, dagokion txostena egin dezan. Txosten hori loteslea izango da Plan Orokorren aldaketa lurralde-antolamenduko tresnetara eta beharrezkoak diren alderdi sektorial guztietara egokitzeari dagokionez.

LAUGARRENA.- Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena jaso ondoren, idazketa-taldeak txosten horren edukia Plan Orokorren aldaketan txerta dezan agintzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi, Miren Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, behin-behinean onartu du Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «24 lurre» esparruko aldaketa puntualaren irizpena.

11. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ARRAMELEKO ZUBIAREN BIRIBILGUNEA EGITEKO NAHITAEZKO DESJABETZEAREN PRESAKO PROZEDURAN UKITUTAKO ONDASUNEN ZERREDA OKUPATU AURREKO AKTA EGITEKO EGUNA ETA ORDUA ZEHAZTEKO IRIZPENA.

PUNTO 11. APROBAR, EN SU CASO, EL DICTAMEN PARA EL SEÑALAMIENTO DEL DÍA Y HORA PARA EL LEVANTAMIENTO DEL ACTA PREVIA A LA OCUPACIÓN DE LA RELACIÓN DE BIENES AFECTADOS EN EL PROCEDIMIENTO URGENTE DE EXPROPIACIÓN FORZOSA PARA LA EJECUCIÓN DE LA ROTONDA DEL PUENTE DE ARRAMELE.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko irailaren 17ko irizpena.

IKUSIRIK

Lehena.- 2025eko uztailaren 3an, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko departamentuko ingeniari teknikoak txostena (AMU25_048) egin zuela bere proposamena aurkeztuz, eta bertan argudiatu zuela honako ondasun hau desjabetzea presako prozeduraren bidez izapidetu behar zela:

1. Finka:

- Erreferentzia katastrala: 7577033
- Jabea: LIZARDI SERVICIOS INMOBILIARIOS SOCIEDAD LIMITADA

Bigarrena.- Erlazionaturiko espediente hau duela: 2025OPRO0004, Arramele zubiko behin betiko biribilgunearen exekuzio proiektua; 2025eko ekainaren 27ko 2025/1817 zenbakidun Alkate Dekretuz onartua.

Hirugarrena.- 2025eko uztailaren 3ko Zinegotzi Delegatuaren Probidentzian hala xedaturik, 2025eko uztailaren 11n, hirigintzako teknikari juridikoak txostena (MAU25080) egin zuela. Hala, egun berean hirigintzako ingeniari teknikoak ere txostena (AMU25_056) egin zuela.

Laugarrena.- 2025eko uztailaren 18an, udaleko jarduneko kontu-hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin zuela, besteak beste, ondorioztatuz nahikoa kreditu zegoela eta egokia zela 2025eko aurrekontuan proposatzen den 10.839,34 euroko gastua baimentzeko 0700.600.01.153.20 2025 aurrekontu partidan.

